

# artelka

**ESKUBIDE POLITIKOAK  
JOPUNTUAN**



**GEDAR**



**B**eharrezkoa da aurrera egitea borrokarako baldintza zehatzetan, hala nola antolakuntza independenterako eskubidean, protestarako eskubidean, adierazpen askatasunerako eskubidean, propaganda komunista oztoporik gabe egiteko eskubidean eta abarretan, baita eskubide horiek mugatzen edo ezabatzen dituzten mekanismo errepresiboei aurre egitea eta haiek desegitera begira lan egitea ere. Borroka horiek ez dira mugatu behar etsaiaren legeak bere egindako eskubide juridikoen marko estura; gainditu egin behar dute marko hori iraultza sozialista gauzatzeko baldintza gero eta ugariagoen konkistaren bidean.

# Edukia

---

**6**

---

**10**

---

**30**

---

**46**

---

## **EDITORIALA**

Arteka

**Iraultzarako  
eskubideaz**

---

## **ERREPORTAJEA**

Xabi Losada

**Polizia:  
burgesiaren  
ordenaren zaindari**

---

## **KOLABORAZIOA**

Ibai Julian

**Estatuaren  
bilakaera  
autoritarioa eta  
eskubide politiko  
aldeko borroka**

---

## **HISTORIA**

### **ERREPORTAJEA**

Markel Samaniego

**Sufragio unibertsala,  
proletariotza  
iraultzailearen  
eskubide politikoa:  
Engels zaharraren  
ekarpenak**

# Iraultzarako eskubideaz

---

**Editoriala**

**E**skubide politikoak, gizartearen antolaketan zeresana duten auzi orokorretan parte hartzeko eskubide kolektiboen zentzuan ulertuta, guztiz mugatuta daude kapitalismoan, nagusiki, burgesiaren menderatze politikorako tresna gisa aritzen den Estatuaren bidez. Estatuan bere egituraren bitartez parte hartzeko eskubide gisa soilik daude bermatuta eskubide politikoak, edo gizarte zibilean parte hartzeko eskubide gisa (ordena sozial burgesa eta haren oinarriak ezbaian jartzen ez badira, bederen). Bi muga horietan aurkitzen da eskubide politikoak gauzatzeko aurrebaldintza: metaketaren erregimen kapitalistarekiko errespetua.

Zentzu horretan, maila juridikoan izan daitekeen berdintasun formaletik haratago, eskubide politikoak jabetzatik eratortzen dira egiaz, eta, beraz, klase-banaketa bat dago haien gauzapenean. Oligarkiak, burgesiaren zuzendaritza frakzioa izaki, eskubide osoa du gizartea bere metaketa interes propioen arabera antolatzeko; izan ere, aberastasunaren ekoizpenerako eta banaketarako nazioarteko bitarteko nagusien jabe da, hala nola estatuen jabe. Klase ertainek, berriz, beren jabetza eta posizio pribilegiatua babesten laguntzen dieten erdibideko botere-instantzien gaineko nolabaiteko kontrola dute, besteak beste, estatu-aparatuak parte-hartzearen bitartez. Azkenik, proletalgoak, klase desjabetu eta menperatu bezala, ez du inolako eskubide politikorik bermatuta, bere interesak lehenago aipatutako bi muga horietatik kanpo baino ezin baitira egikaritu: Estatuaren mugetatik eta ordena sozial kapitalistaren mantentzetik at.

## ***Maila juridikoan izan daitekeen berdintasun formaletik haratago, eskubide politikoak jabetzatik eratortzen dira egiaz, eta, beraz, klase-banaketa bat dago haien gauzapenean***

Proletalgoaren eskubide politikoak, nagusiki, Estatuaren aparatu errepresiboen bitartez indargabetzen ditu burgesiak; aparatu horiek, aldi berean, dispositibo kultural antiproletario indartsu bezala jarduten dute. Aparatu horien artean aurkitzen dira besteak beste armada, epaileak edo Polizia, zeinak proletalgora diziplinatzeaz eta bere emantzipazio-interes historikoak geldiarazteaz arduratzen baitira. Faxismoa ere aipa daiteke atal honetan, Estatuarentzat funtzionala eta haren menpekota den mekanismoa baita, proletalgoaren jardun politiko independenterako baldintzei aurrez aurre eraso egiten dien heinean. Gainera, kontuan izan behar dugu krisiak edo klase menderatzaileak metaketa-ziklo berri bat berrabiarazteko duen ezintasunak hainbat aldaketa eragiten dituela gizartea gobernatzeko moduan. Hain justu, gobernatzeko modu horren ezaugarri nagusia da Estatuaren autoritarismoa indartzen dela – Estatuaren errepresio-aparatuak gogortzen dira –, eta, beraz, nabarmen okerragotzen dituela langile klasearen parte-hartze politikorako baldintzak.

***Proletalgoaren eskubide  
politikoak, nagusiki, Estatuaren  
aparatu errepresiboen  
bitartez indargabetzen ditu  
burgesiak; aparatu horiek, aldi  
berean, dispositibo kultural  
antiproletario indartsu bezala  
jarduten dute. Aparatu horien  
artean aurkitzen dira besteak  
beste armada, epaileak edo  
Polizia, zeinak proletalgoa  
diziplinatzeaz eta bere  
emantzipazio-interes historikoak  
geldiarazteaz arduratzen baitira***



***Proletalgoarentzat, aldarrikatu beharreko eskubide politiko nagusia iraultza sozialistarako eskubidea da. Hala ere, aldarrikapen horrek ezin du Estatuari egin beharreko eskakizunaren forma hartu, ezin baita, jakina, kapitalismoan gauzatu; hura posible egingo duten baldintza politikoak konkistatu behar dira***

Gizarte kapitalistan proletalgoak jasaten duen egiturazko bazterketa dela eta, gogoan hartu behar dugu iraultzarako eskubidea proletalgoaren eskubide politiko historikoa dela, hau da, berak sortutako aberastasun materialaren eta kulturalaren ekoizpen- eta banaketa-baldintzak bereganatzeko eskubidea duela proletalgoak, eta, halaber, klase baten beste klase baten bizkar bereganatutako onura pribatua ordezteko bide ematen dion bestelako gizarte-antolaketa bat sortzeko eskubidea, aberastasunerako sarbide unibertsala eta gizartearen antolaketaren gaineko kontrol kolektiboa oinarri izango dituen.

Hortaz, proletalgoarentzat, aldarrikatu beharreko eskubide politiko nagusia iraultza sozialistarako eskubidea da. Hala ere, aldarrikapen horrek ezin du Estatuari egin beharreko eskakizunaren forma hartu, ezin baita, jakina, kapitalismoan gauzatu; hura posible egingo duten baldintza politikoak konkistatu behar dira. Ikuspegi horretan, gauza bera dira proletalgoaren eskubide politikoak eta borrokarako dituen baldintzak, hau da, jardun iraultzailerako aukera-markoa, zeina, aldi berean, proletalgoaren momentuan momentuko indar antolatuen emaitza baita.

Beharrezkoa da aurrera egitea borrokarako baldintza zehatzetan, hala nola antolakuntza independenterako eskubidean, protestarako eskubidean, adierazpen askatasunerako eskubidean, propaganda komunista oztoporik gabe egiteko eskubidean eta abarretan, baita eskubide horiek mugatzen edo ezabatzen dituzten mekanismo errepresiboei aurre egitea eta haiek desegitera begira lan egitea ere.

Borroka horiek ez dira mugatu behar etsaiaren legeak bere egindako eskubide juridikoen marko estura; gainditu egin behar dute marko hori iraultza sozialista gauzatzeko baldintza gero eta ugariagoen konkistaren bidean. ●

# POLIZIA: BURGESIAREN ORDENAREN ZAINDARI

---

Testua — **Xabi Losada**

Irudia — **Lander Moreno Lizarraga**



**E**dozein gizartek, primitiboenak ere, kontrol soziala behar du ordena ezartzeko. Arau sozialak betearazteko, askotariko metodoak erabiltzen dira (prebentiboak, zigor bidezko metodoak eta metodo konpentsatzaileak; ohiturak, sinesmenak eta balioak; lotsa, beldurra eta desira), baina mekanismo ugari ere (Familia, hezkuntza, komunikazio baliabideak...). Horrela, muga fisikoak antzinatek erabili izan dira arauak betearazteko. Halaxe frogatzen dute tribu primitiboei buruzko ikerketek nahiz antzinateko historiografiak. Hala ere, dominazio sistema burgesak bakarrik du berezkoa ordena soziala mantentzeko biolentziaren monopolioa duten talde espezializatu eta profesionalen sorrera. Zainketaren, patruilatzearen, gatazkak konpontzearen, delituen ikerketen eta abarren eginkizun guztiak talde profesional baten esku bakarrik uztea burgesiaren asmakizuna da. Asmakizun hori Polizia da.

Esan beharra dago “polizia” terminoa historian zehar kontzeptu oso zabal bat izendatzeko erabili izan dela, hain justu, komunitatearen ongizatearekin zerikusia duen edozer izendatzeko. Hitza grekotik dator πολιτεία (politeia) eta bizirautearekin eta hiriko (polis) ongizatearekin zerikusia zuen guztiari egiten zion erreferentzia. Baina gaur egun hizkuntza juridikoan oraindik modu lausoago baten erabiltzen den arren, edo duela gutxi arte beste auzi batzuk izendatzeko erabili den arren, terminoaren erabilera ohikoenak argi eta garbi izendatzen du polizia taldea bera, hau da, burgesiak bere ordena propioa mantentzeko erabiltzen duen kontrol sozialerako mekanismoa. Testu honetan zehar terminoaren zentzu horretan jardungo dugu: Polizia instituzio moduan.

**K**risi kapitalistaren aurrean, beste neurri batzuk tarteko, burgesiak Estatuaren autoritarismoa Polizia sendotzearen bidez irmotzeko apustua egin du, eta hori geroz eta hobeto ikusia denez eta normalizatuago dagoenez, testu honek Poliziak betetzen duen funtzioa ulertzeko gakoak lantzeko helburua du. Datozen lerroetan, hurbilpen bat egingo da industriaurreko kontrol sozialerako mekanismoetara, iraultza industrialak ekarri zituen aldaketetara eta Poliziak kontrol baliabide berri bezala izan duen garapenera. Azkenik, hausnarketa txiki bat egin da ondorioren bat ateratzeko saiakeran.

### **KONTROL SOZIALA INDUSTRIALIZAZIOAREN AURRETIK**

Aurretik aipatu dudan moduan, gizakiak biolentzia erabili izan du antzinatetik bake soziala mantentzeko baliabide moduan, arauak inposatzeko edo haiek urra ez zitzaten. Antzinatetik zaindu izan dira kaleak, bideak eta eraikinak. Antzinatetik egon da gaizkileen aurkako jazarpena. Baina hori guztia ez du Estatuaren instituzio espezializatu eta profesional batek egin. Gaizkileei jarraitzeko, biztanleria zaintzeko, legeak betearazteko eta abarrerako polizia talde bat existitzea pentsaezina zen, gutxienez, duela berrehun urte arte.

Adibidez, gaizkileei jarraitzea biktimen esku egon zen milaka urtetan zehar. Biktinek gurasoen, lagunena, edo inguruan zebilen eta delitua ikusi zuen norbaiten laguntza jaso zezaketen, baina erantzukizun hori ere borondatezkoa zen hasiera batean (geroago, erlijioak bultzaturik, lekuko edo bizilagunek nahitaez lagundu beharko zieten biktimei). Gauzak horrela, ikerketak, atxiloketak, epaiketak eta, askotan, zigorrak ezartzea ere biktimen esku egon zen mendeetan zehar, hau da, pribatuan egin izan ziren. Antzinatetik existitu izan dira indarraren erabileran berezitutako taldeak edo komunitatearen ikuskapenaz kargu egiten ziren figurak, baina instituzio “publikoak” ez ziren norbanakoaren integritatea zaintzeko. Alderantziz, ordena orokorra mantentzeaz arduratzen ziren. Horregatik, ez zuten gatazketan esku hartzen gobernari berari eragiten ez bazion. Poliziak delinkuentziarekin amaitu behar duela pentsatzea, beraz, guztiz moderno da.

Ingurukoen laguntzaz gain, balioek, sinesmenek eta moralak zuten pisua ezinbestekoa zen garai hartan jendeak arauak errespetatu zitzen. Sorginkeriak eta magiak gatazkak konpontzeko izan zuten ahalmena ikusi besterik ez dago; adibidez, ohikoa zen madarika-zioak erabiltzea bi aldean arteko bakea lortzeko. Hainbat erlijiotako fedeak ikusteak (betirako zigorraren beldurra) ulertzen laguntzen digu bizikidetzara arauak nola errespetarazten zituzten.

Komunitate primitiboetan ere aurki ditzakegu legea betearazteko erantzukizun formala zuten figurak, eta, hala ere, kapitalismoaren garapena iritsi arte hori ez zen sistematzatu estatu mailan, ezta profesionalki ere. Zeregin batzuk, hala nola kaleak eta bideak zaintzea edo gaizkileak eta kontrabandistak harrapatzea, komunitatean egiten ziren, txandaka edo borondatezko patruilekin. Baina aguzila bezalako figura berezituak ere txandaka funtzionatzen zuten XIX. mendean hasierara arte, urtebeteko agintaldietan eta ordainsaririk gabe. Haien eginkizuna zen, adibidez, garbiketaxandak betetzen zirela ziurtatzea, etxeek suteen aurkako segurtasuna zutela egiaztatzea (atearen atzealdean balde bat ur izatea, tximiniak garbi egotea etab.) eta agindu judizialak entregatzea. Eginkizun batzuek ordainsaria zuten (adibidez, jartzen zuten isunaren zati bat beretzat jasotzea), eta, askotan, ordainsaririk ez zuten zereginak egin gabe gelditzen ziren. Dirudunek beste norbaiti ordaindu ahal zioten aguzail izateko, egokitzen bazitzairen.

Azkenik, kondestablea, aguzail burua eta polizia burua bezalako figurek ikuskapen zeregin orokorrak egiten zituzten gobernatzailearen, erregearen edo egokitzen zenaren izenean. Kargu horiek izateko ikasketa-maila altua izatea beharrezkoa zen (Zuzenbidean, adibidez) eta ordainsari handia eskaintzen zen postuagatik. Figura horiek ez zuten zuzenean soldatarik kobratzen, baina diru-sarrerara handiak zituzten zergak biltzeagatik, gaizkileak epaitzeagatik etab.

## **INDUSTRIALIZAZIOAK EKARRITAKO ALDAKETAK: POLIZIA-EREDU BERRI BATEN BEHARRA**

Kontrol sozialerako komunitate mekanismo horiek eraginkortasuna galtzen joan ziren pixkanaka, ekoizpen modu kapitalista zabaltzen joan zen heinean. Izan ere, antzinako ordena soziala nekazari komunitateetan zegoen oinarrituta, eta, beraz, garrantzi handia zuten harreman interpersonalek, ohitura-zuzenbideak, familia eta Eliza instituzioen indarrak, merkatuen erregulazioak (protektionismoa, gremio-sistema...) eta abarrek. Industria gizartearen garapenak nekazaritz ekonomiatik industria-ekonomiarako aldaketa ekarri zuen, eta, aldi berean, landa-eremutik hirirako exodo masiboa, gizakiaren historian inoiz izandako hazkunde demografiko handiena eta hiri handietan geroz eta handiagoa zen biztanleria-metaketa.

Aldaketa horiek guztiak bizirauteko bitarteko sozialak kapitalera moldatuz egin ziren, eta horretarako, besteak beste, desamortizazioa edo lurren hesitzea eta pribatizazio prozesuak erabili ziren. Lur horiek ordura arte erabilera komunitarioa zuten eta antzinako ordena sozialaren oinarria ziren. Makinek eta nekazaritza-teknika berriek lurraren errentagarritasun handiagoa ekarri zuten, eta pribatuak izatera igaro zirenez, aberastasuna lur-jabeen eskuetan kontzentratzera igaro zen. Bestalde, ekoizleak beren bizirauteko bitartekotik aldentzen eta industria-hiritara bultzatzen zituzten, soldatepeko esku-lan izateko.

Azpitarratu beharra dago langile klasearen sorrera prozesu diziplinatu luze eta bortitza izan zela. Soldatepeko diziplina, hau da, soldata baten truke lanera joan behar dela pentsatzeko dugun zentzu komuna, ez zen existitzen. Eta are gutxiago bizirauteko modu bakarra ordainsari bitartez izan daitekeelako pentsamendua. Espainiako Estatuan, hain justu, nagien eta gazkileen aurkako legeak horretarako sortu ziren bereziki, hain zuzen, soldatepeko biziraupena onartzen ez zuten haiek lanera behartzeko. Lan egiteko gai ez ziren zahar edo desgaitasunen bat zutenek eskale lizentzia bat eskuratu zezaketten, baina lanerako gai zen pertsona ororen aurka jazarpena erabiltzen zen; ordainsari bat frogatzeko gai ez zen norbait harrapatuz gero, isunak jartzen zizkieten, jipoitu egiten zituzten, zaurituta utzi arte markatzen zituzten, esklabo bihurtzen zituzten, galeretara eramaten eta baita heriotza-zigorra ezartzen ere. Langabeen, eskaleen, nagien, etxegabeen eta alferren kontrako legeak XV. mendean hasi ziren indarrean eta eta gure garaietara arte iraun dute. Adibidez, Espainiaren kasuan, *Ley de Vagos y Maleantes* delakoa (nagien eta gaizkileen aurkako legea) 1933an onartu zen Bigarren Errepublikako Gorteetan. Gerora, 1970ean, *Ley de Peligrosidad Social* (arriku sozialari buruzko legea) izeneko batek ordeztu zuen; lege hori homosexualen errepre-siorako sortu zen, eta ez zen 1995. urtera arte erabat indargabetu.

Soldatuen erregimenetik at bizirautean saiatu zirenak zigortu zituzten bezala, milaka urtetan zehar gizartearen zati handi baten bizirauteko modua izan ziren hainbat praktika ilegalizatu ziren. Ordainsari bat irabaztearekin talka egiten zuten ohitura, usadio eta ohitura-zuzenbidearen arauak debekatu egin ziren, besteak beste, basoetan eroritako egurrak, lursailetan jaso gabeko aleak, portuetako lurretan eroritako produktuak eta abarrak biltzea.

Finean, lehenengo, nekazariei lurrak kendu zizkieten eta haien usadioak legez kanpo utzi, eta ondoren, soldatapeko lanik ez zuen pertsona oro jazarri eta zigortu egin zuten. Horrela diziplinatu zen proletalgoa, horrela sortu zen langile klasea, eta Poliziak egin zuen, hain zuzen ere, lan zikin guztia. Poliziak ikuskatzen zituen etorkin txiroak eta baita leku batetik bestera ibiltzen ziren

eskaleak ere, zeinak handituz zihoan arrisku bat bezala ikusten ziren. Ofizialak, aguazilak eta zaindariak izan ziren ordena berria ezartzeko kontrol sozial mekanismoa. Inork garbitu nahi ez zituen kale nazkagarri eta arriskuak haiek garbitu zituzten. Alferkeria eta jokabide antisozialak erreprimitu zituzten. Poliziak sortu zuen langile klasea. Bera da ordena burgesa ekoiztearen erantzulea.

Horrela, hiriak hazten joan ziren, geroz eta langile masa handiagoak sortu ziren, eta, egoera hartan, informalak ziren kontrol-bitartekoak indarra galtzen joan ziren. Etorkinak askotan eskaleak ziren, komunitatetik kanpo zeuden, eta ez zeuden Poliziaren kontrolpean. Harreman interpersonalek ere indarra galdu zuten. Landa-eremuan elkar ezagutzea kontrol mekanismo indartsua zen, baina hirian pixkanaka anonimotasuna nagusitu zen. Aldi berean, familia eta Eliza instituzioek ere gaitasuna galdu zuten ordena berria ezartzean. Horrenbestez, geroz eta jende gehiagok galdu zituen komunitateko autokontrol mekanismoak. Industria-iraultzak, gainera, lurrin-makinaren sorrerarekin, azkartu egin zuen prozesu hori guztia. Demografia inoiz baino gehiago hazi zen, eta hirietan biztanleen ehuneko geroz eta handiagoak batzen ziren. Hirietan biztanle txiroen masa erraldoiak pilatu ziren, eta horiek, gainera, geroz eta baldintza okerragoetan bizi ziren.

## ***Komunitate primitiboenetan ere aurki ditzakegu legea betearazteko erantzukizun formala zuten figurak, eta, halere, kapitalismoaren garapena iritsi arte hori ez zen sistematizatu estatu mailan, ezta profesionalki ere***

Desberdintasun sozialak gero eta nabariagoak ziren, eta, aldi berean, gremioen araudiak bertan behera utzi ziren. Arau horiek mugak jartzen zizkieten esplotazioari edo prezioei; horrenbestez, uzta txarra zegoenean gorakada izugarria izaten zuten oinarritzko elikagaien prezioek, eta horrek guztiak goseteak izateko aukera handitzen zuen. Aldi berean, fabrika berriek kualifikaziorik gabeko esku-lan mordo behar zuten eta langabezia-tasa oso handia zenez, soldatak miserabileak ziren.

Alderdi hauek guztiek istiluak ugaritzea ekarri zuten, garai hartan protestek forma hori hartzen baitzuten normalean. Tentsioa baretzeko eta bakea berrezartzeko metodo ohikoena armada izan ohi zen, baina haren eragin-kortasun eza ere gero eta nabariagoa zen, batik bat protesta haiek bortizki baretzen zirelako, zaldi, sable eta suzko armen bidez. Biktimen kopuruak oso altuak zirenez, istiluak areagotu eta krisi politikoa larriagotu besterik ez ziren egiten. Bestalde, askotan armadak bat egiten zuen protestekin. Ez zenez armada erregularra, langile klaseko jendeak osatzen zuen, eta batzuetan uko egin zioten protestak erreprimitzeari. Hirugarren, armadak beste zeregin batzuk zituen, adibidez, mugak defendatzea, gudarako prest egotea edo kolonietako kontrola mantentzea. Zeregin horiek guztiak betetzea oso zaila izan ohi zen.







***Lehenengo, nekazariei lurrak kendu zizkieten eta haien usadioak legez kanpo utzi, eta ondoren, soldatapeko lanik ez zuen pertsona oro jazarri eta zigortu egin zituzten. Horrela diziplinatu zen proletalgoa, horrela sortu zen langile klasea, eta Poliziak egin zuen, hain zuzen ere, lan zikin guztia***

Horregatik guztiagatik, burgesiak kontrol sozialerako mekanismo berriak behar izan zituen bere jarrera dominatzailea sendotzeko. Mekanismo horiek ezin zuten izan antzinatean gizartean bakea ezarri zuten talde informalak, ezta militarrek ere, ez baitzuden hiriko anabasan berezitura.

#### **POLIZIA BURGESAREN GARAPENA**

Ikusi dugunez, industrializazio prozesuak hiritartze masiboa eta ezberdintasun sozialen zein pobrezia eragin zituen. Aldi berean, indarra galtzen hasi ziren ordura arte egondako kontrol sozialerako mekanismoak, barnekoak zein kanpokoak, formalak zein informalak izan. Krisian zegoen ordena soziala, eta beharrezkoa zen kontrol mekanismo berriekin indartzea. Horiek horrela, burgesiak jendea estatu mailan errekrutatzeari ekin zion. Hala, formakuntza espezializatu jasoko zuten talde egonkorak antolatzen hasi zen Estatuak; talde horiek hiriko errealitate berrian ordena publiko mantentzeko ardura profesionalki beteko zuten, hau da, ordainsari baten truke. Berrikuntza ez zetzan bete beharreko eginkizunetan, eginkizun horietako asko aspalditik betetzen baitziren, aipatu dugun moduan; aldiz, berria zen horiek profesionalizatzea, espezializatzea eta estatalizatzea. Hertsadura eta intimidazioa baliatuz ordena mantentzera bideratutako tresna berezitu batez hornitu zen Estatuak. Botere belikoa sortu zuen kanpoko mehatxuengandik babesteko subiranoa eta biztanleria, eta, modu berean, botere poliziala sortu zuen estatu barneko mehatxuei aurre egiteko.



**Burgesiak kontrol sozialerako mekanismo berriak behar izan zituen bere jarrera dominatzailea sendotzeko. Mekanismo horiek ezin zuten izan antzinatean gizartean bakea ezarri zuten talde informalak, ezta militarrek ere, ez baitzeuden hiriko anabasan berezitatea**

Lehen esperimentuak XIX. mendean hasieran izan ziren, Frantzia eta Ingalaterran. Paris eta Londres garai hiri industrial garatuenak ziren, eta antzeko beharrak zituzten. Horregatik, ez da kasualitatea paraleloki garatu izana *Sergents de Ville* zirelakoak lehenengoan, eta *Metropolitan Police* bigarrenen. Ezberdintasun txikiren bat bazuten ere, helburu bera zuten biek: prebentzioa. Talde horiek errondan patruilatzen zituzten kaleak, desordena saihesteko haien presentziaren bidez. Dibisioak sortzen zituzten hiri guztian egoteko, uniformeak eta makilak soinean. Polizia zibiltzat hartu ohi dira, eta Europa osoan barna hasi ziren zabaltzen. Aldi berean, Polizia zibilarrekin batera, Polizia militarra delakoa garatu zen. Laburbilduz, urte luzez Europa osoko landa-eremuak eta bideak patruiltzeko, bidelapurrei jazartzeko eta abarrerako erabili ziren taldeak modu iraunkor eta profesionalean ezarri ziren. Horien artean aipatzekoak dira *Gendarmerie Nationale* delakoa Frantzia, *Guardia Civil* Espainian, *Carabinieri* Italian eta *Guarda Nacional Republicana* Portugalen, besteak beste.

Bi polizia talde zibilak eta militarrek maiz desberdindu izan dira “polizia-ereduaren” gaineko eztabaidetan; esan izan da estatu “demokratikoek” lehenengoaren alde egiten dutela, eta “autoritarioek” bigarrena hobesten dutela. Alabaina, bi indar polizialak erabili dira eskuarki, eta elkarren osagarri izan dira. Ingalaterra ez da salbuespen, *Irish Constabulary* delakoa (Polizia militarra) sortu baitzuen Irlanda kolonialean ordena mantentzeko, nahiz eta Polizia demokratikoaren bandera lau haizetara astindu izan duen edo bere Polizia “munduko hoberena” dela aldarrikatu duen, besteak beste. Nola-bait txanpon beraren bi aldeak dira bi polizia “eredu” horiek: lehenengoa hirietan espezializatzen da eta bigarrena landa-eremuan, zentro inperialistan “eredu demokratikoa” hedatzen da eta, periferiako koloniak kontrolatzeko, “eredu autoritarioa”. Bestalde, garrantzitsua da zehaztea izaera zibileko polizia-taldeen hasieratik hartu zituztela militarren hierarkia, diziplina eta estruktura, armadak estruktura guztiz piramidalerako zuen joera neurri batean errepikatu ez bazuten ere.

Polizia agenteek eginkizun ugari bete behar izan zituzten kaleak patruilatzeaz gain: haiek garbi mantendu inolako zabor edo oztoporik gabe (poliziaren jazarpena errazteko, armak edo lapurtutako gauzak gordetzeko tokirik ez uzteko...), inolako eskale edo arloterik egon ez zedin zaindu, aterpetxeetako erregistro zerrendak ikuskatu, bigarren eskuko salerosketak kontrolatu, trafikoa bideratu eta istripuak ekidin, kaleko liskarrak kudeatu, etab. Egiteko horiek modu eraginkorren burutzeko denbora behar izan zuten. Ordea, prebentzioa ez zen nahikoa izan istiluak desagerrarazteko, eta beharrezkoa zenetan armadak esku hartzen jarraitu zuen (eta jarraitzen du); XIX. mendean zehar eta XX. mende hasieran askotan sartu behar izan zuen eskua.

Sortu zenez geroztik, Polizia pixkanaka modernizatu eta perfektionatu zen ordena mantentzeko. Helburua aipatutako kontrol sistemaren eraginkortasuna hobetzea izan zen bereziki. Batetik, zilegitasuna izan behar zuen Poliziak; bestetik, emaitza onak eman behar zituen. Lehenengo kontuari dagokionez, hasieran Polizia txartzat hartua zen, ulertzen baitzen helburu alderdikoiek bultzatuta erabilitako agentea zela (zenbait kasutan erabili izan zen, ez oso modu sotilean gainera, botoak kontrolatzeko; beste batzuetan politikoei aukeratzen zituzten ofizialak...) edota nagusien segurtasun indarra zela (greben kontra egiten zuten, enpresariak konfiantzazko gizonak sartzen zituzten taldean...). Arazo konpontzeko, XX. mendean zehar instituzio poliziala pixkanaka burokratizatu zen: oposizioen bidezko sarbide publikoa ezarri zen, unibertsitateetan kriminologia ikasketak eskaintzen hasi ziren zenbait postu eskuratzeko eta abar. Hala garatu zen Polizia beste edozein zerbitzu publikoren mailan jartzeko prozesua, hala nola medikuntzaren edo hezkuntzaren pare jartzekoa; alde batera gelditu zen ordura arte izandako "matoï" itxura, eta zilegitasuna lortu zuen, legea formalki betearazteko lan egiten zuten aitzakiapean.

Emaitzei dagokionez, teknikaren garapena pixkanaka perfektionatu zen Poliziaren lana sistematikoki ikeru izanari esker, eta, hala, bide eman zitzaion zientzia polizialari. ikasketa polizialerako metodoak ezartzen hasi ziren XX. mendearen hasieran: pre-soak nola galdekatu eta nola analizatu bakoitzaren ezaugarri fisikoak, zer bilatu behar zen krimena gertatutako tokian, nola sailkatu eta gorde delitugileen erregistroak... Halaber, antropometria eta hatz marken bidezko identifikazioa garatu ziren, txirrindua, motozikleta, eta, azkenik, autoa erabiltzen hasi ziren patruilatzeke; barne komunikaziorako telefonotegi sareak eta irratia ezarri ziren; tresna espezi-fikoak asmatu ziren, gezur detektagailua kasu, eta abar.

Garrantzitsua iruditzen zait argitzea berrikuntza horiek guztiak behin periferia kolonialean probak egin eta gero hasi zirela erabiltzen herrialde kapitalista garatuetan. Adibide argia dira aipatutako *Irish Constabulary* erabili zutela Londresko *Metropolitan Police* delakoaren inspirazio gisara eta *Philippine Constabulary Pennsylvania State Police* delakoaren inspirazio gisara. Baina, era berean, aipatzekoak dira Haiti, Dominikar Errepublika edo Nikaraguako polizia koloniala; Japonia, Hego Korea edo Hego Vietnamgo inteligentzia eta kontrainsurjentzia operazioak; eta Gerra Hotzaren garaian Iran, Uruguai, Argentina edo Brasilen sortu zituzten talde errepresiboak.

Interesgarria da halaber azpimarratzea hainbat estatutako instituzio polizialak elkarrekin harremanetan egoten hasi zirela, mugimendu iraultzaileei aurre egiteko teknikak amankomunean jartzeko eta eztabaidatzeko.

**Sortu zenez geroztik, Polizia  
pixkanaka modernizatu  
eta perfektzionatu zen  
ordena mantentzeko.  
Helburua aipatutako  
kontrol sistemaren  
eraginkortasuna hobetzea  
izan zen bereziki.  
Batetik, zilegitasuna  
izan behar zuen Poliziak;  
bestetik, emaitza onak  
eman behar zituen**



***“Arazoak konpontzera bideratutako polizia” ereduaren beharra mahaigaineratzen hasi zen; gehiengo sozialak jarduketa polizialak onartzeko, fokua gizartearen kezketan jarriko zuen polizia, alegia***



1848ko matxinadez geroztik, estradizio sistemak adosten hasi ziren eta mugak eta trenbideetako polizia indarzen. Gerrarteko garaiko etenaldiaren ostean, Gerra Hotzean behin betiko berrezarri zen lankidetzeta internazionala.

XX. mendearen hasieran, ordena sozialerako teknika gisara perfektzionatzen ari zela, aipatu moduan, Poliziak indar armatuen laguntza jaso behar izan zuen sistematikoki, eta, are, ikusirik Estatua hainbat egoeratan masa proletarioei eutsi ezinda zebilela, burgesiak talde paramilitarregana ere jo zuen. Horren adibide ditugu Italiako “alkandora beltzak”, Alemaniako “alkandora arreak” eta Espainiako “eskudra beltzak”. Estatuko mekanismo formalen ezgaitasunaren aurrean ordena burgesa mantentzeko jardun zuten.

Garrantzitsua da azpimarratzea Bigarren Mundu Gerraren ostean kontrol sozialerako zein inportantea izan zen Ongizate Estatuaren garapena. Sobietar Batasunaren mehatxuaren aurrean, eta gainbalioaren tasak gora egiten zuela, burgesiak bake soziala ezarri ahal (eta behar) izan zuen langile klasearen sektore zabal bat kontsentsu demokratiko burgesean integraztearen bidez. Horretarako, langile klasearen obedientzia erosi zuen, bere eginez herrialde azpigaratuak gehiegi ustiatzean oinarritutako ongizate mendealdar edo nazionala. Erabili ziren politika sozialak ere kontrol sozialerako mekanismoak izan ziren, ordena burgesa mantentzeko baliatu baitziren. Politika sozialak eta zigor politikak XX. mende osoan zehar konbinatu ziren (“azenarioaren eta makilaren politika”, finean).

Metaketa kapitalistaren krisiak behartuta eta Sobietar Batasunaren porrotak ahalbideduta, Mendebaldeko burgesiak pribatizazio, desarautze eta proletarizazio faseari ekin zion, eta, hala, aipatutako itun interklasista arriskuan jarri zuen. Egoera berri horren aurrean, zientzia polizialaren eta teknologia berrien garapenaren bidez, kontrol sozialerako gaitasunak perfektzionatu zituen Estatuak.

Helburuak, ordea, ez ziren aldatu: batetik, matxinadarako aukera oro desagerrarazi nahi zuen, eta, bestetik, langile klasea bizirautea kondanatu eta soldatapeko diziplina bermatu nahi zuen. Teknika berrietan zetzan berrikuntza. Zientzia polizial berriak inoiz baino hobeto ulertu zuen ordena mantentzeko zein garrantzitsua zen poliziak sozialki zilegitasuna izatea. Mende hasieran martxan jarri ziren burokratizazio prozesuek mugekin egin zuten topo, biztanleek ikusten baitzuten agenteak herritarren beharretatik bereizirik zeudela. “Arazoak konpontzera bideratutako polizia” ereduaren beharra mahaigaineratzen hasi zen; gehiengo sozialak jarduketa polizialak onar zitzen, fokua gizartearen kezketan jarriko zuen poliziaz, alegia.

Planteamendu hori moral bikoitzez egin da. Batetik, polizia komunitarioaren, gertuko poliziaren eta besteren ideiak garatu dira. Polizia-eredu horretan, agenteek oinez patruilatzen dute, auzoan ezagunak dira, haiei izenez zuzentzen zaizkie auzokideak, eskoletan daude, familiako arazoetan sartzen dira, auzokideen bileretan parte hartzen dute... Polizia mota hori komunitatearen parte da, eta jendearen arazoak ezagutzen ditu, eta, jakina, zehaztasun osoz informa dezake arazoez eta barru-barrutik esku hartu. Teknika hori leiho hautsien teoriarekin batera erabili izan da. Teoria horren arabera, auzoan leiho bat hautsi, eta inork konpontzen ez badu, lapurrak erakarriko ditu eta auzoa pixkanaka hondatuko da. Haatik, leihoa istantean konponduz gero, ez dute hondatuko. “Zero tolerantzia” deiturikoa ekarri zuen teoriak, hau da, delinkuentzia desagerrarazteko delitu txikienaren errepresioa bultzatzea. Hori posible izateko, poliziaren presentziak normalizatua behar izan izan, kaleetan, auzoetan, eskoletan... Ondo ikusia behar izan jendeak haiekin hitz egitea, galderak egitea, arduratzea... Finean, gizarteko txoko guztietara hedatzea ordena.

Bestetik, “arazoak konpontzera bideratutako polizia-ereduak” erakutsi nahi zuen jendearen kezka zirela agenteen lehenetsua, hau da, pertzepzio subjektiboa. Propagandaren bitartez baina, posible zen masen pertzepzioak manipulatzeko, iritzi publikoa aldatzea, beste lehenetsun batzuk ezartzea eta abar. Gainera, ezin ahaztu dezakegu poliziengandik jasotako albiste eta datuek nolako garrantzia eta zentraltasuna dute; izan ere, neutralizat jotzen dira eta zaila da informazio hori beste iturri batzuekin kontrastatzea.

Teknologia berriei dagokienez, elektronikaren eta informatikaren garapenak monitorizaziorako, jarraipenerako eta aurreikuspenarako mekanismo sorta berri bat ahalbidetu du, lehenengo polizia-gaietako teoriarientzat pentsaezinak zirenak. Hauek dira adibide batzuk: Internet, bideozaintza, DNAREN bidezko identifikazioak, posizionatze globaleko sistema (GPS), droneak, hautematen zailak diren entzuteko eta grabatzeko tresna sofistikatuak, hilgarriak diren eta ez diren arma oso sofistikatuak, adimen artifiziala... Horiez gainera, “Intelligence-led Policing” delakoa dago. Azken horrek mota guztietako datuak baliatzen ditu (aurrekari penalak, jabetzan izandako ibilgailuak, lanpostuak edo bestelako jarduera ekonomikoak, historia medikoa, erosketak ohiturak, sare sozialetako joera...), eta algoritmoak erabiltzen ditu delituak gertatzeko potentzialak izan daitezkeen egoerak, tokiak, talde edo pertsonen patroiak aurrez identifikatzeko.


## **POLIZIAREN ABOLIZIOA ORTZI MUGAN**

Poliziarrekiko kritikoak diren zenbaitek zalantzan jarri ohi dute ordena mantentzea helburu duen polizia-eredua. Parlamentuko ezkerreko zein eskuineko figurek mahaigaineratzen dute maiz. Gehienetan, ezkerrekoek instituzio poliziala kontrolatuago egon dadin proposatzen dute, eta eskuinekoek, berriz, diskrezionalitate eta autonomia handiagoa ematea Poliziari. Lehenengok polizia “demokratikoago” baten beharra azpimarratzen dute, eta bigarrenek jarrera autoritarioagoaren beharra. Alabaina, ez bata ez besteak ez du zalantzan jartzen ordena kapitalista bere horretan mantendu beharra. Poliziak modu batean edo bestean jardutearen gainean eztabaidatzen dute, armak erabili edo ez, formakuntza gehiago edo gutxiago den beharrezkoa... Baina ez da zalantzan jartzen indarkeriaren monopolia duen talde berezitu bat beharrezkoa ote den ordena burgesa zaintzeko.

***Poliziak modu batean edo bestean jardutearen gainean eztabaidatzen dute, armak erabili edo ez, formakuntza gehiago edo gutxiago den beharrezkoa... Baina ez da zalantzan jartzen indarkeriaren monopolia duen talde berezitu bat beharrezkoa ote den ordena burgesa zaintzeko***









Are, sozialdemokraziak teorian langile klaseen onurarako eta botere poliziala deuseztatzeko egiten dituen proposamen eta erreforma guztiek ere kontrol sozialerako Poliziaren beraren modernizazioa eta sendotzea bultzatzen dute. Izan ere, behar eta garai berrietara egokitzen du, zilegitasuna eman eta eraginkor egiten du, eta itxura oneko adjektiboz apainduta (“gertukoa”, “demokratikoa”...), aurpegi zuriketan sakontzen du.

Ordena burgesak beharrezkoa du botere hertsatzailea, argi baitago gizartearen gehiengo zabala ez litzatekeela sekula soldatapeko erregimenaren menpe jarriko bortxa eta mehatxu etengabeko eta zuzenagatik ez balitz. Ekoizpen eredu burgesak langile klase zabala behar du, aberastasuna ekoitziko duena gero bakar batzuek bereganatu dezaten. Ordena sozial hori, gizartea antolatzekeko modu hori, ez litzateke posible izango indarkeriarik gabe. Pistola bat dugu guri begira egunero lanera joan gaitezen; horrek eusten dio bake sozialari.

Alabaina, beharrezkoa litzateke hori ekoizpen bideak zein aberastasun soziala guztionak balira? Beharrezkoa litzateke indarkeriaren monopolioaren jabe den gutxiengo sozialak gizartearen gehiengoa kontrolatzea? Beharrezkoa litzateke biztanleriaren gehiengo zabala ordenaren kontrolarengandik bereiz egotea? Ekoizpen bideak eta aberastasun soziala sozializatuz gero, ez litzateke beharrezkoa izango langileria kontrol sozialerako bitartekoengatik bereiz egotea. Bestela esanda, klaserik gabeko gizarte batean posible izango zen amankomunean jartzea ordena mantentzeko lana. Soilik horrela uler daiteke Polizia abolitzeko helburua.

# *Pistola bat dugu guri begira egunero lanera joan gaitezen; horrek eusten dio bake sozialari*

Polizia abolitzeko arrazoia ez da sinpleki burgesiaren kontrolpean egotea, berezko duen ordena mantentzeko logika bera baizik. Polizia abolitzearekin batera kontrol sozialerako bitartekoak sozializatu beharra dira. Horiek horrela, gizarte komunista batean ez al dira beharrezkoak izango ordena mantentzera bideratutako mekanismo espezializatuak? Beharbada. Baina, nolahi ere, mekanismo horien kontrola herriak izango du. Dominazio sistema abolitzearekin batera, kontrolatua denaren eta kontrolatzen duenaren arteko bereizketa desagertuko da. ●



## **BIBLIOGRAFIA**

**GUILLÉN, Francesc** (2015): *Modelos de policía y seguridad*

**GUILLÉN, Francesc** (2016): *Policía: modelos, estrategias y reformas. De la policía gubernativa a la seguridad plural*

**BAYLEY, David H.** (1998): *The development of modern police* artikulua; *Policing perspectives: an anthology* liburuan, Larry Gaines (ed.)

**EMSLEY, Clive** (2021): *A short history of Police and policing*

**NEOCLEOUS, Marc** (2022): *Maderos, chusma y orden social: una teoría crítica del poder policial*

**VITALE, Alex** (2019): *El final del control policial*


# Estatuaren bilakaera autoritarioa eta eskubide politikoen aldeko borroka



---

Testua — **Ibai Julian**

Irudia — **Zoe Martikorena**







**E**statuaren funtzio nagusia, ekoizpen eredu kapitalista hegemoniko bilakatu zenetik aurrera bederen, Kapitalaren metaketa-dinamikak era egokian funtzionatzeko beharrezko baldintzak ezartzea izan da. Ezin dugu Estatu ulertu harreman ekonomikoekiko autonomia den gainegitura gisa, bestelako interesak dituen agente independentea balitz bezala. Estatu kapitalista, historikoki, kapital handien dominaziorako forma politikoa izan da: sistema ekonomiko lehiakor eta sunsitzaille honek sortzen dituen laztasunak leuntzearen erantzulea, alegia. Hala ere, historian zehar aldatu egin da Estatuak ordenamendu juridiko eta sozialaren eraketan parte hartzeko forma, garapen ekonomikoaren beharren arabera. Eta, hain justu, horixe da kontua: aztertu egin behar dugu zer forma konkretu izan duen Estatuak ekoizpen kapitalistaren fase historiko bakoitzean, norabide batera edo bestera bultzatu duten egiturazko faktoreei erreparatuz. Guk, hemen, puntu zehatz bati helduko diogu: eredu paradigmatico baten agortzeari eta berri bat eratzeko joerari (hori ari da gertatzen gutxienez Mendebaldeko herrialdeetan). Lehenengo eredu hori gerra arteko sasoian eraldatu, kapitalismoaren urrezko urteetan egonkortu, eta 70eko hamarkadan agortzen hasi zen, neoliberalismoaren etorrerarekin. Testu honetan *Zuzenbide Estatu Sozial* izendatuko dugu. Bigarrenari, lehenengoaren agorpenetik gaur egunera arte konfiguratzeko joan den ereduari, *Estatu Autoritario* esango diogu.

Zuzenbide Estatu Soziala garapen ekonomiko gorakorreko sasoi batean eraiki zen, zeinetan, masa-ekoizpenari esker, ongizate eta kontsumo maila altuak izan zitzaizkeen langile klasearen zati handi batek. Lana soberan zegoen, eta Estatu klase ertain zabal horri zergak jarrita finantzatu zitekeen. Garai haietan, egiazki hitz egin zitekeen estatuen politika ekonomikoaz, Estatuak subiranotasun erreala baitzeukan biltzen zuen aberastasuna kudeatzeko. Oinarri ekonomiko horren bitartez, beste gauza batzuen artean, babes soziala eta soldaten igoera hedatu ahal izan ziren langile klasearen geruza zabaletara.

## **70eko hamarkadan hasi ziren egiturazko eraldaketekin, Zuzenbide Estatu Soziala bultzatu zuten oinarriak ahultzen joan ziren, eta horrek gaur egunera arte iristen den joera bati bidea egin zion: Estatuaren bilakaera autoritarioari**

Horrekin batera, garai hartan burgesiari demokraziaren zilegitasuna defendatzea komeni zitzaion, eta hura “totalitarismo” faxistak eta komunistak gainditzeko alternatiba logiko gisa aurkezten zuten. Era horretan, aldarrikatu zuten garrantzitsua zela Zuzenbide Estatu indartzea gerrak zeharkatutako urte haietan ezabatutako izan ziren oinarriko eskubideak babesteko. Hala ere, ezin dugu alde batera utzi komunismoaren existentziak prozesu horretan izan zuen eragin sakona: aginte kapitalistak ez zuen Zuzenbide Estatu bultzatu konpromiso humanistagatik edo justiziagatik, baizik eta antolakunde komunista handiak neutralizatzeko, bide demokratikotik Estatuan integratuz.

Hala eta guztiz ere, 70eko hamarkadan hasi ziren egiturazko eraldaketekin, Zuzenbide Estatu Soziala bultzatu zuten oinarriak ahultzen joan ziren, eta horrek gaur egunera arte iristen den joera bati bidea egin zion: Estatuaren bilakaera autoritarioari. Horretarako bi faktore nagusi azpimarratuko ditugu jarraian.

Lehenengo faktorea da Estatu Soziala ezinezko bilakatzen dela. Estatuak subiranotasun politiko eta ekonomikoa galdu zuen nazioarteko kapital finantziarioaren aurrean, zeina gero eta kontzentratuago zegoen eta boteretsuagoa zen. Inbertsore izatetik zordun izatera igaro zen, eta oligarkia finantzarioek inposatutako programa ekonomikoen mendeko bilakatu. Hartara, lurraldearen gaineko agintea galdu zuen, eta nolabaiteko transmisio uhal bilakatu zen. Ordutik, Estatuak zor infinitu bat kudeatu behar izan du, langile klasearen diziplinamenduaren eta pobretzearen kontura.

Bigarren faktorea da Zuzenbide Estatua *alferrikako* bilakatzen dela. Proletariotzaren antolakunde politiko eta sindikatuak bere barnean integratu ostean, Kapitalak ez du inolako oposiziorik, zeinari azalpenak eman edo kontzesioak egin behar dizkion. Gauzak horrela, hamarkada luzez herriaren interes orokorra ordezkatu duen agentzia neutral baten irudia izanagatik ere, gaur egun gero eta nabarmenago ari gara ikusten Estatu maskara demokratikoa kentzen ari dela, bere benetako izaera agerian uzteko: Kapitalaren klase diktadurarako aparatu politikoa da.

Azken finean, mozkinak lortzeko espektatibak lurra jotzen ari diren eta akumulazio krisiak aurrera egiten duen testuinguru honetan, ezinbestean intentsifikatzen dira bai kanpo gatazka geopolitikoa, baita barne ezegonkortasun soziala ere. Horren aurrean, Estatu behartuta dago ordenamendu konstituzional eta errepresibo berri bat sortzera, testuingurura egokituko bada. Gure aburuz, Estatuaren erreforma autoritarioa hiru elementu hauetan oinarritzen da nagusiki: Estatuaren botere instantzien berrantolaketa, makineria militarren indartzea eta kontrol sozialerako eta errepresiorako mekanismoen modernizazioa.

## ESTATUAREN BOTERE INSTANTZIEN BERRANTOLAKETA

Gobernuen botere instantziak berregituraketan daude. Pitzatzen ari da *botereen arteko oreka*, Zuzenbide Estatu modernoaren oinarri nagusietakoa. Estatuak bestelako botere egitura bat behar du datozen krisi sozialei, politikoei eta inperialistei eusteko; finean, eredu berri bat, non aginte-boterea, etengabeko salbuespen-egoera gobernatzeko, botere exekutiboan metatzen den; bitartean, edukiz husten ari da botere judiziala.

Lehenengo puntuari dagokionez, duela gutxi egin den Segurtasun Nazionalerako Legearen erreformak argi eta garbi ilustratzen du nola botere exekutiboak gero eta botere handiagoa duen salbuespeneko egoeretan zuzenean agintzeko, beste gauza batzuen artean. Erreforma berri horrek dakarrena da segurtasunerako baliabideak (hala nola segurtasun kidego pribatuak eta polizia autonomikoak) Segurtasun Nazionalerako Kontseiluaren agintean zentralizatzea eta organo horri zuzenean esumena ematea baliabide horiek kudeatzea helburu duten plan taktikoak aktibatuz. Norabide berean, ikusten dugu gero eta ohikoagoa dela botere exekutiboak neurri garrantzitsuak ezartzea inolako izapide parlamentariorik gabe; Ukrainara armamentu astuna bidaltzea, kasurako.

Botere judizialari dagokionez, pandemia garaietako neurriei begiratzea baino ez dugu: Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri zuen dekretuz, eta, salbuespen neurri horren bitartez, herritarrek etxean konfinatu, etxeratze aginduak ezarri, kaleak militarizatu eta beste hainbat neurri hartu zituen. Bada, gobernuak oinarritzko eskubide multzo bat ezabatu eta hilabete batzuk geroago, Auzitegi Konstituzionalak ilegaltzat jo zituen harturiko neurriak, eta, hala ere, horrek ez du inolako ondorio legalik izan neurri horiek ezarri zituzten botere publikoentzat. Hori gertatzeko arrazoia da egiazki praktikan botere judizialak ez duela lekurik Estatu Autoritarioan. Egungo oinarri konstituzionalak babestu, eta, ondorioz, botere exekutiboaren jarduna ikuskatuko duen botere autonomo bat oztupo larria da azken horrentzat orain arteko oinarritzko eskubide batzuk bertan behera utziko dituen ordenamendu konstituzional berri bat sortzeko bidean.

## **Estatuaren botereen instantziak berrantolatzeak, kontrol sozialerako eta errepresiorako mekanismoak indartzearekin batera, lagundu egiten die trabarik gabe eta era azkar eta eraginkorrean soldatak arpiltzeko eta metaketari berriz ekiteko oligarkia finantzarioak dituen planei**



Garai zailak datoz, beraz, eta gobernuek bidea garbi izan behar dute segurtasun nazionala bermatzeko eta metaketa-ziklo berriaren eraldaketa beharrei kosta ahala kosta erantzuteko. Hala, botere judizialaren existentzia testimoniala da eta soilik estalki demokratikoa mantentzeko balio du, hau da, oraindik ere desbideratze autoritarioak eta estatuaren krimenak mugatuko dituen Zuzenbidea existitzen delako itxura mantentzeko.

Hala eta guztiz ere, orain arte azaldutakoak ez du esan nahi Estatu bere baitara itzultzen ari denik edota azken hamarkadetan galdutako subiranotasuna berreskuratzen ari denik. Estatu nazionalak, besteak beste Espainiak eta Frantziak, NATOren eta Europar Batasunaren programa estrategikoak ezarri baino ez dute egiten, segurtasun nazionalaren, ordena publikoaren eta kanpo politikaren esparruetan. Are gehiago, Estatuaren botereen instantziak berrantolatzeak, kontrol sozialerako eta errepresiorako mekanismoak indartzearekin batera, lagundu egiten die trabarik gabe eta era azkar eta eraginkorrean soldatak arpiltzeko eta metaketari berriz ekiteko oligarkia finantzarioak dituen planei.



**Munduko gastu militarren  
igoera izugarriari erreparatu  
besterik ez dago konturatzeko  
bloke oligarkikoak eskala handiko  
gerrarako prestatzen ari direla**

## **Makineria militarra indartzea eta krisi belikoa**

Kapital metaketaren egungo krisi testuinguruaren ezaugarri nagusietako bat, nazioarteko lehia kapitalistari dagokionez, egitura militarra interes blokeen arteko baliabideen eta merkatuen kontrolerako bitarteko gisa berrarmatzea da. Bloke oligarkikoen irabaziei eusteko ohiko neurriak, gero eta gogorrago aplikatuta ere, ez direnean aski (gerra komertziala, muga zergak, enbargoak eta abar), eskalada belikoa saihetsezin bihurtzen da. Hau da, atzeraldi ekonomikoaren egungo testuinguruan, gatazka belikoak sakondu egiten dira eta Clausewitz-en aipu zaharrak gaurkotasan osoa hartzen du: “politikaren jarraipena da gerra, bestelako bide batzuetatik egina”.

Munduko gastu militarren igoera izugarriari erreparatu besterik ez dago konturatzeko bloke oligarkikoak eskala handiko gerrarako prestatzen ari direla. 2021ean, Ukrainako eskalada baino lehenago, munduko gastu militarrek urteko bi bilioi dolarrek gainditu zituen historian lehen aldiz. Gastu hori urtetik urtera handitzen ari da, gainera. NATO-ren baitako herrialdeek gastu horren % 50 ordezkatu zuten, eta AEBk % 38 (801.000 milioi dolar). AEBren lehiakide nagusiek, Txinak eta Errusiak, gastu osoaren % 13,8 eta % 3,1 egin zituzten, hurrenez hurren. Gainerako aktore geopolitikoak aurrekoetatik urrun gelditzen diren arren, gastu militarra gora egiten ari da munduaren luze-zabalean. Esate baterako, Espainiako Estatuan, PSOEren eta Unidas Podemosen gobernuak gastu militarra nabarmen handitu du; gaur egun BPGaren % 2,17 izatera heldu da, NATOk estatuei ezartzen dien eskakizuna aise gaindituta (nork bere BPGaren % 2 defentsa-gastuetarako erabiltzeko eskatzen die).

Europar Batasunari dagokionez, nabarmentzeko da gero eta lankidetzat militar estuagoa dagoela herrialdeen artean. Elkarlan hori bereziki azkartu da Erresuma Batua Europar Batasunetik atera ondoren. Herrialdeak gaitasun bateratuak garatzen ari dira; horretarako, elkarrekin jartzen dituzte martxan estrategiak definitzeko mekanismoak, azpiegitura eta industria militarra bideratutako funtsak, edota esku-hartze zuzen eta zeharkakoen finantzazioa (Ukrainaren kasuan ikus daitekeen bezala). Gauzak horrela, herrialdeak oro har berrarmatzeko eta Europar Batasunak autonomia militarra izateko elkarlana sustatzen ari dira.

Aipatzekoa da Europar Batasuneko herrialdeek ez dutela behin ere NATOrekin eta AEBrekin mendekotasuna zalantzan jarri. Are gehiago, 2022ko martxoan onartutako Iparorratz Estrategikoan (gerra-estrategiari buruzko Europar Batasunaren lehen dokumentuan) Aliantza Atlantikoa erekin harremanak estutzearen alde egiten dute. Beraz, mundu mailako eskalada beliko bat dugu aurrean, datozen urteetan Europako koiuntura politikoa baldintzatuko duena.

## **PROLETARIOTZAREN KONTRAKO KONTROL SOZIALERAKO ETA ERREPRESIORAKO MEKANISMOEN MODERNIZAZIOA**

### **Errelato sekuritario eta kriminalizatzailea**

Segurtasuna eskaini ezin duen gizarte batek huts egiten du. Estatu zibileko krisi batean ez sartzeko oinarriko baldintza da segurtasuna. Estatu ez bada gai biztanleek beren bizi proiektua baldintza minimo batzuetan gara dezaketela bermatzeko eta jendea ezegonkortasun eta arrisku egoera batek zeharkatzen badu, auzitan jartzen da gizarte eredu bera. Baina, lehen adierazi dugun bezala, krisia gatazka geopolitikoak zein pobrezia areagotzen ari da, eta horrek ezjakintasuna eta segurtasun eza eragiten ditu, gaindituztat jotzen genituen egoera batzuk gaur egunera ekartzearaino.

Arazo ekonomiko eta sozialei konponbide eraginkorrak emateko ezintasunaren aurrean, gero eta joera handiagoa dago konponbide polizial eta zigortzaile baten aldeko hautua egiteko eta gizarteko auziak segurtasunari loturiko arazo gisa aurkezteko. Era horretan, lehenetsuna ematen zaio autoritate sinbolikoa berreraikitzeari, estatu indartsu baten itxura emanez; hau da, Estatu zorrotz baten itxura, herritarren segurtasunaren eta ordena publikoaren kontrako mehatxu oro sendotasunez zigortzeko zailantzarik egingo ez duena. Xede horrekin, Estatuak propaganda ugari jartzen du abian, teoriarik suntsitu nahi duen horixe bera sorrarazteko: beldurra.

## Aparatu errepresiboaren oinarrizko funtzioa ez da delinkuentziari aurre egitea, baizik eta legea eta ordena bermatzea, indarraren eta zigorren bitartez proletariotza diziplinatuz

Horretarako, gainera, “etsai komunaren” erai-kuntza simbolikoa baliatzen du: jendartearen izu soziala sortzeko kanpainak gauzatzen ditu, zeinetan figura estigmatizatuak eraikitzen diren eta sektorerik proletarizatuenak kriminalizatu eta ardura haiengan jartzen den: 80ko hamarkadako toxikomanoa, etorkina, lapurra, okupa... Haiek izendatzen dira pagaburu, sorturiko izua bideratzeko eta politika errepresiboen gordintzea ahalbidetzeko. Hemen kokatu genitzake, halaber, desberdintasunak desberdintasun, 2001eko irailaren 11tik (11-S) aurrera mundu osoan aplikatu ziren politika antiterroristak, zeinek kontrol eta errepresio mekanismoak areagotzeko balio izan zuten eta nagusiki langile klasearen aurka aplikatu ziren.

Esan beharra dago eskuineko alderdiak eta, bereziki, faxismoa direla eztabaida publikoa segurtasunaren arlora ekartzearekin gehien irabazten dutenak. Aipagarria da egoera horrek guztiak haztegi perfektua osatzen duela faxismoaren gorakadarako. Faxismoak proletariotzaren aurkako pakto sozial berri bat bultzatzen du, eta Estatuaren bilakaera autoritarioa elikatzen. Etsai komuna definitzeko prozesuan eginkizun garrantzitsua du, baita Estatuaren neurri autoritarioekiko masa-atxikimendua lortzeko ere. Horretarako, komunitate nazionalaren ideia indartzen du, eta irizpide etniko eta kulturalen bitartez definitzen du nor den komunitate horren parte eta nor ez. Era horretan, seinalatu eta kriminalizatu egiten ditu gutxiengo zapalduak, etorkinak eta proletariotzaren potentzia antolatzen duten adierazpen politiko independenteak, segurtasun nazionalerako arazo gisa aurkezten baititu, bai eta karikatuzatu ere, izu soziala elikatzeko.

Alabaina, proletariotza ez da arazoa, eta Estatuaren aparatu errepresiboa ez da konponbidea. Beste era batera esateko, kriminalitatea ez da gizarteko segurtasun faltaren iturri nagusia, eta Estatuaren aparatu errepresiboaren xede bakarra ez da krimenari aurre egitea. Lehen puntu horri dagokionez, nahikoa hitz egin dugu jada; beraz, atera dezagun argitara penaltate kapitalistaren benetako aurpegia eta desmunta dezagun “krimena eta zigorra” binomio faltsua. Waquanten zigorraren soziologiak gidaturik, akademia “progresistak” berak nahikoa ebidentzia eskaini ditu frogatzeko kriminalitate indizearen eta estatuaren aparatu errepresiboa sendotzearen arteko zuzeneko korrelazioa ez dela aurkezten diguten bezalakoak. AEBn dugu adibide paradigmatico bat: 1970. eta 2010. urteen artean kriminalitate indizeak antzera jarraitzen zuen, eta, aldiz, preso kopurua zortzi aldiz hazi zen eta aparatu errepresiboa nabarmen gogortu. Antzera gertatzen da Espainiako Estatuan: Ignacio Gonzálezek dionez, gaur egun duela 50 urte baino polizia eta preso gehiago ditugu, baita Franco hil zenean baino zigor kode gogorragoa ere. Eta, hala ere, delinkuentziak ez du gora egin azken hiru hamarkadetan, zigor sistema gehien gogortzen duten neurriak egonkortasun hori erdietsi ostekoak izan badira ere. Ez dirudi, beraz, politika kriminalaren garapena delinkuentziarekiko erantzunak soilik azal dezakeenik.

Laburbilduz, ezinbestekoa zaigu zigor sistemari buruz kriminologia hegemonikoak eskaintzen digun ulermen markoa apurtzea eta errealtatearekin bat datorren eta ekintza politikorako baliagarria izango zaigun definizioa fintzea Estatuaren aparatu errepresiboarentzat, ikuspegi marxista batetik. Horretarako, bi urrats hauei jarraitu beharko diegu: hasteko, sarrera egingo diogu Estatuaren aparatu errepresiboaren analisiari, eta, gero, kontrol sozialerako eta errepresiorako mekanismo garaikideak duten norabideari buruzko lau hipotesi garatuko ditugu.



### **Estatuaren aparatu errepresiboaren analisiari ekin aurreko oharra**

Esaten ari ginen moduan, kontrol sozialerako eta errepresiorako mekanismoen modernizazioa ikuspegi marxistatik aztertzeke, alde batera utzi behar dugu “krimena-zigorra” ardatz okerra, eta “proletariotza-burgesia” ardatzarekin ordeztu, hau da, klase borrokaren ardatzarekin. Labur esateko: aparatu errepresiboaren oinarritzko funtzioa ez da delinkuentziari aurre egitea, baizik eta legea eta ordena bermatzea, indarraren eta zigorren bitartez proletariotza diziplinatuz. Ondorioz, metaketa-ziklo bakoitzean Estatuaren aparatu errepresiboak hartzen duen forma konkretua aztertzeke, ekonomia politikoaren kritika izan behar da gure abiapuntua, XX. mendeko pentsalari komunista handiek egin zuten eran, bai eta zigorraren ekonomia politikoaren aitzindari Ruschek eta Kirchheimerek *Zigorra eta Egitura Soziala* lanean eta haien jarraitzaile italiar Melossik eta Pavarinik *Kartzela eta Fabrika* lanean egin zuten moduan ere.

Besteak beste, autore horiek nabarmentzen dute oso garrantzitsua dela kategoria ekonomikoaren eta zigor kategorien arteko artikulazioak desfizitza; izan ere, haien esanetan, hori da bide bakarra Estatuaren aparatu errepresiboaren benetako aurpegia argitaratu ateratzeko –klase dominaziorako indar antolatua dela, alegia–, bai eta behar bezala azaltzeko ere zein den erreserbako armada industrialaren rola kartzela sistemaren bilakaeran, eta alderantziz, hau da, zein den kartzelak lan indarraren ekoizpen eta modulazio historikoan betetzen duen funtzioa.

Une honetan, beharrezkoa da azpimarratzea burgesariarentzat suntsitu ezin duen balizko barne mehatxu bat dela proletariotza. Horretan datza, zehazki, gobernagarritasun modernoaren artea: proletariotza joko arauen barnean mantentzeko eta diziplinatzeke mekanismoak garatzea, baina hura suntsitzera iritsi gabe. Hori horrela da, nagusiki, kapitalak eragile ekonomiko gisa behar duelako proletariotza, hau da, kontsumitzaile gisa ere bai, eta ez soilik ekoizle gisa, kapitalismoaren aurreko garaietako klase erdiesklabizatuarekin gertatzen zen moduan. Ondorioz, kapitalismo garaikidea behartuta dago klase baxuak bizirik mantentzera eta gutxieneko eskubide politiko eta ekonomiko batzuk ahalbidetzera, Kapitalaren erreproduktzioa normaltasunez gauzatzeko. Gainera, gizarte zibilak lortu duen zoru etikoa kontuan hartzen badugu, beheko klaseen genozidio edo kartzelaratzeko prozesu batek zilegitasun krisi larria eragingo lioke gobernuari.

Integratio/esklusio mekanismoen arteko proportzioak eta mekanismo horien nolakotasunak definitzen du, beste elementu batzuekin batera, Gobernagarritasun eredu zehatz bat edo, nahi bada, proletariotza neutralizatzeko estrategia bat. Une historikoaren eta kapitalaren metaketa esparruak eskaintzen duen marjina objektiboaren arabera, neutralizazio estrategiak sozialagoak edo punitiboagoak izango da, eta langile klasea gehiago edo gutxiago integratuko/eskluituko da prozesu sozial eta politikoetan.

Hori horrela da Estatuaren aparatu errepresibo instituzio konplexua delako; hau da, pobrezia eta gatazka soziopolitikoaren administrazioarako sare instituzional zabal baten parte den elementu gisa ulertu behar dugu. Ezin dugu zigor sistemak hartzen duen forma aztertu hori harremanetan jarri gabe instituzio sozialekin –gizarte zerbitzuak, eskola, osasun mentala, familia, fabrika, masa entretenimendurako plataforma birtualak...–.

Eta hortxe gezur handi bat azaleratu behar dugu: ordenaren alderdiek bi politika desberdin gisa aurkezten dizkiguten horiek, errealitatean, bi alde dituen politika bakarra dira. Esaten digute gizarte zerbitzuek pobrezia aurka borrokatzen dutela, eta ordenaren agenteek, berriz, krimenaren aurka. Baina hori ez da horrela. Gizarte babesaren arloko politikak eta segurtasunaren arloko politikak elkarri lotuta daude. Izan ere, kontua ez da, sozialdemokraziak esaten duen moduan, babes sozialeko sistema desegin egin dela eta aparatu errepresiboa hedatu egin dela; kontua da, bi horien arteko proportzioa aldatzen ari bada ere, instituzio sozialak zein instituzio punitiboak gero eta kutsu autoritarioagoa hartzen ari direla. Puntu hau hirugarren hipotesian osatuko dugu.



## **Ohar batzuk kontrol sozialerako eta errepresiorako mekanismo garaikideen norabideaz**

### **Lehen hipotesia: gabezia diziplinatetik, gehiegizko kopuruari eustera**

Poliziaren eta kartzelaren genesi historikoa kapitalismoaren eskutik datoz, eta haien funtzio nagusia ez da soilik izan hirigune berrietako delinkuentzia kontrolatzea, baizik eta ordena berri bat ekoiztea, desjabetuen klase sozial berri bat diziplinatuz soldatapeko lan industrialaren erregimen berrian integratzeko.

Esaten dugunean elkarrekin datozela kapitalismoa eta instituzio errepresibo modernoak, hala nola polizia eta kartzela, haien nolabaiteko aldibereketasuna eta elkarrekikotasuna azpimarratzen ari gara. Hain zuzen ere, Marxek berak, *Kapitala* lanaren XXIV. kapituluan, jatorrizko metaketari buruzkoan, azpimarratu egiten du zeinen garrantzitsuak izan ziren espropiazio metodo bortitzak kapitala gai izan zedin ekoizpen modu feudalaren oinarriak lehertu eta industriara behar adinako eskulan “libre” kantitatea bideratzeko. Hori modu bikainean azaltzen du hirugarren atalean, “Espropiatuen aurkako legedia odoltsua” izenburu adierazgarria duen horretan. Seigarren atalean ere prozesu horren izaera benetan bortitza azpimarratzen du. Hau esaten du, hain zuzen ere: “Dirua mundura badator masailean odol orbanak dituela, kapitalak odola eta lokatza zurrustaka isurarazten du, poro guztietatik, burutik hasi eta oinetaraino”.

Kartzela da, ziurrenik, garai hartako aparatu zigortzaileen beharra eta haien izaera zuzentzailea ilustratzeko adibiderik onena. Ez dira gutxi kartzela modernoaren hastapenak –kartzela funtzio zuzentzailea duen zentro itxi gisa ulertuta, alegia– Ingalaterrako lan etxeetan kokatzen dituztenak. *Workhouse* izeneko zentro horiek, hain zuzen ere, gatibu lanerako zentroak ziren, zeinetan lanik ez zuten edo lan egiteari uko egiten zioten proletarioak –eta, ondorioz, kalean noraezean, eskean edo alderrai zebiltzanak– sartzen ziren. Zentro horiek hainbat funtzio zituzten: 1) soldatak kaskarrak inposatzea eta proletarioak behartzea fabriketako lan baldintza gogorak onartzera, ez baitzeuden haietara ohituta; 2) proletarioen erresistentzia suntsitzea, lan indarraren eskari handia eta eskaintza txikia zegoen garai batean; eta 3) proletarioak manufaktura lanetan trebatzea, bai alor teknikoari bai kulturalari zegokionez, jokabide arau guztiz zorrotzekin (uniformea, higiena, hiztegia, kantuak, etab.).

Gaur egun, ordea, lanak gizartean zentraltasuna galtzearen ondorioz proletariotza ekoizpen prozesutik kanporatua izaten ari den garaiotan, penaltatearen izaera zuzentzailea, hezitzailea edo bergizarteratzearen aldekoa erabat aldatzen ari da. Eskulana makinarekin elkartzeak beharrezko izateari uzten dionean, lan indarraren kalitate fisiko, kultural eta moralak garrantzia galtzen du kapitalarentzat; are gehiago, langile klasea zenbat eta idiotizatuagoa, despoltizatuagoagoa, medikalizatuagoa, kikilduagoa, deprimituagoa eta bere buruarekiko konplexuz beteagoa izan, orduan eta moldagarriagoa izango da bere jokabidea, orduan eta errazagoa izango da hura otzantzea. Finean, kontrol sozial totalean eta izuan oinarritutako eredu bati bidea irekitzen ari zaio, produktiboki beharrezkoa ez den eta estrukturalki gizartetik at dagoen sektore sozial bat arrastotan sartuta mantentzeko.

## **Langile klasea zenbat eta idiotizatuagoa, despoltizatuagoagoa, medikalizatuagoa, kikilduagoa, deprimituagoa eta bere buruarekiko konplexuz beteagoa izan, orduan eta moldagarriagoa izango da bere jokabidea, orduan eta errazagoa izango da hura otzantzea**

### **Bigarren hipotesia: biraketa prebentiboa**

Cornishen eta Clarkeren hautaketa arrazionalaren teoriak dio delituak egiten dituzten pertsonen arrazionalki erabakitzen dutela ekintza horiek aurrera eramatea. Haien arabera, delitu bat egin edo ez erabakitzeko orduan, baldintzatzaille nagusia arriskuen eta onuraren arteko harremanaren azterketa da. Bada, kontrolerako teknologia digitalek, polizia sozialak eta gizarte polizialak osatzen duten panoptiko berriaren eraketa, hain zuzen, arriskuen eta onuraren arteko harremana aldatzera dator, eta, horretarako, ekinbide gatazkatsuak saihesteko oztopoak jartzen ditu zelatatzeko eta kontrolerako dispositiboen bitartez.

Esan beharra dago kontrol sozialak funtzio zibilizatzaile argia ere betetzen duela, dagoeneko “Txinako kreditu soziala” izeneko sistema aurreratua goekin ikus daitekeen bezalaxe. Baina, duen funtzio kulturaletik haratago, Txinako kreditu sozialaren adibidearekin argi eta garbi ikusten da nola gainditzen den “legezkoa-legez kanpoko” ardatza, jokabideak “zibilizatua-ez zibilizatua” ardatzean kokatzeko eta, sailkapen horren arabera, sariak eman edo eskubideak kentzeko; hala, “ongi” portatzen direnei sari ekonomikoak ematen zaizkie, eta “gaizki” portatzen direnen izenak zerrenda beltzetan argitaratzera iristen dira. Foucaultek “infrapenalitatearen hedapena” deitu zion alderdi horri.

### **Hirugarren hipotesia: lurraldea kartzela gisa, edo kartzelaren hedapena lurraldera**

Azken urteotan, kriminalitate indizea eta preso kopurua txikitzen ari dira. Horrek kontraesankorra dirudi Estatuaren bilakaera autoritario bat bizitzen ari garela defendatzen dugunontzat. Bada, egoera hori azaldu dezakeen arrazoi nagusia da kartzela bera lurraldera hedatzen ari dela.

Alde batetik, kontrol mekanismoak fabriketako hormetatik eta industrialdeetatik atera dira, eta bizitza sozialerako gero eta hiri ingurune gehiago inbaditu dituzte. Horri dagokionez, interesgarriak dira Mike Davisen eta beste soziologo batzuen lanak, zeintzuek hiriko espazioen ekoizpena aztertzen duten kontrol sozialerako tresna gisa. Hiriko kartografiaren birbanaketa-prozesu bat bizitzen ari gara, non diskriminazioak eta segregazioak ere gehiago sakontzen dituzten lurralde arrakalak. Hirien zentroa aberatsentzako jolas parke bihurtzen den bitartean, pobreak periferiara kanporatzen dituzte bertako auzo proletarizatuetan biziraun dezaaten. Auzo horiek poliziaz josita daude, edota “tentsio handiko gune” izendatzen eta haientzat propio sortutako arautegi zigortzaileak ezartzen dituzte.

Baina azpimarratu nahi duguna hau da: kartzelako itxialditik itxialdi sozialera igarotzen ari gara, non pertsona pobreak etengabe mehatxatzen dituzten instituzio sozialek, hala nola hezkuntza sistemak, osasun sistemak edo gizarte zerbitzuek; instituzio horiek itxuraz proletariora babesteko balio dute, baina errealitatean gero eta izaera autoritarioagoa dute. Izan ere, alde batetik, lehen aparatu errepresiboek erabili ohi zituzten funtzioak eta lan egiteko moduak garatzen ari dira, kontrollean eta zigorrean oinarrituak; beste alde batetik, gero eta lankidetzaz zuzenagoan aritzen dira estatuaren aparatu errepresiboekin. Argi eta garbi ikus daiteke hori EHUren kasuan: alde batetik, unibertsitate gero eta neurri autoritarioagoak normalizatzen ari da, kasurako, ikasle greba baten harira 34 zehapen-espediente irekitzea; eta, beste alde batetik, poliziarekin lankidetzaz zuzenean aritzen da, unibertsitatean espioitza lanak egin ditzan edo neurri horien kontra protesta egiten duten ikasleei isunak jar diezazkien.



**Kartzelako itxialditik itxialdi sozialera igarotzen ari gara, non pertsona pobreak etengabe mehatxatzen dituzten instituzio sozialek, hala nola hezkuntza sistemak, osasun sistemak edo gizarte zerbitzuek; instituzio horiek itxuraz proletariotza babesteko balio dute, baina errealitatean gero eta izaera autoritarioagoa dute**

### Errepresioaren objektuei buruzko oharrak

Komenigarria da modu orokorrean bada ere errepresioaren jopuntuak zein diren esatea. Hona hemen hiru:

1) Soldataren erreproduzio zirkuitutik kanpo-ko alternatibak (soldata zuzena eta zeharkakoa). Soldatak jaisten direnean, handitu egin dira proletariotzak bizirauteko espropiazio zuzenera edo bestelako bide alternatiboetara jotzeko aukerak. Baina Kapitalak pobrezia inposatu behar du, eta ezarritako mugetatik ateratzeko aukerak erabat suntsitu. Zentzu horretan ulertu behar dugu jabetzaren aurkako delituak saihesteko neurriak gogortzea. Okupazioaren aurkako ofentsiba edo lapurreta txikien aurkako legea *hautagarritasun txikienaren zigor printzipioa* sendotzera datoz. Horrela, proletariotza ohartarazten dute: “nahiz eta bizi baldintzak txarrak izan soldatapeko lanean edo Estatuaren dirulaguntzetan kateatuta, erreproduzio zirkuitu horietatik kanpo txabolismoa eta kartzela baino ez dituzu aurkituko”.

2) Protesta soziala. Azken urteotan, ezinegon soziala asimilatzeke eta isilarazteke eskubideen eta askatasunen murrizketa larriak ari gara ikusten. Sare juridiko berri bat bidea egiten ari da jendeak protesta ekimenetan parte har ez dezan. Horren adibide dira, esaterako, Mozal Legea –nahiz eta historiako gobernurik ustez progresistenak indargabetzea zin egin zuen– eta zigor kodearen azken erreforma –desordena publikoen delitua gogortzen du manifestazioak erreprimitzeko arma gisa–. Hala ere, funtsezko desberdintasun bat dago bataren eta bestearen artean: Mozal Legea 15-M mugimenduaren aurkako legea da, suminduen mugimendu espontaneo geldiarazteko erantzun gisa hartu zizuten zenbait neurriren kontsolidazio juridikoa. Ondorioz, lege hori argiki *erreaktiboa* da, eta gertakari sozialen ondoren etorri zen. Ordea, duela gutxi egindako Zigor Kodearen erreforma lege *proaktiboa* da, ezer gertatu baino lehen egin baita. Badirudi oraingoan Estatuak egoerari aurre hartu diola, eta ez du inolako konplexurik erakutsi gaur-gaurkoz existitzen ez den balizko erantzun soziala mugatzearen neurririk gogorrenak ezartzeko.

## Perspektiba horrek ahalbidetzen digu azpimarratzea eskubideen iturria ez dela izango Estatu kapitalista, baizik eta sozialismoa bera, indar korrelazioa proletariotzaren aldera ekarriz eta askatasun baldintza gero eta gehiago konkistatuz doan heinean

3) Antolakunde independenteen borroka politiko independentea. Estatuaren neurgailu bikoitza nabarmena da: finantzazioa, eskubideak eta askatasunak ematen dizkie bere baitan integratutako alderdi politikoei, eta jazarpen estrategia aplikatzen du proletariotzaren antolakunde independenteen aurka. Oinarrizko eskubideak urratzea eta errepresioa, salbuespena baino gehiago, eguneroko ogia dira Estatuaren aurpegi okerrenari aurre egin behar diogun antolakunde independenteontzat. Alde batetik, intentsitate txikiko errepresioa jasaten dugu, isun ekonomikoak izanik adibiderik paradigmaticoak. Baina, beste alde batetik, intentsitate handiko errepresioa ere jasaten dugu, kolektiboa, penala eta selektiboa; horretarako prest egon beharko dugu.



### **Borrokarako baldintzen aldeko borroka: eskubide politikoak**

Testuan zehar ikusi ahal izan denez, defendatzen duguna da Estatuaren erreforma autoritarioa ez dela modu sendoan antolatutako mehatxu politiko bati ematen zaion erantzun erreaktiboa. Hala ere, horrek ez du esan nahi orain arte deskribatutako neurriek ez dutenik zailtzen proletariotzaren antolakuntza independentearen existentzia. Horregatik, hain zuzen ere, oraingoa bezalako garai zailetan, antolakunde iraultzaileok lehen lerroan jarri behar dugu borrokarako baldintzen aldeko borroka.

Eskubide politikoen aldeko borroka ez da legez jasotako eskubide juridikoen marko estura mugatzen. Sozialdemokraziaren proposamenaren aurka, auzia ez da mugatzen Estatuak legez onartutako oinarritzko eskubideak defendatzera, baizik eta progresiboki proletariotzaren jardun politiko independentea garatzeko baldintza multzoa hedatzera. Izan lege bidezko aitopenen bidez, izan permissibitate-erregimenen bitartez, auzia burgesiaren dugun indar korrelazioa da, eta haren bitartez gure jardun politikoa garatzeko baldintzak inposatzeko gaitasun efektiboa erdiestea. Perspektiba horrek ahalbidetzen digu azpimarratzea eskubideen iturria ez dela izango Estatu kapitalista, baizik eta sozialismoa bera, indar korrelazioa proletariotzaren aldera ekarriz eta askatasun baldintza gero eta gehiago konkistatuz doan heinean.

Ikuspegi horretatik artikulatu daiteke jardun politikorako marko zabalago bat, itxuraz deskonektatuta dauden zenbait borroka barne hartu eta elkarlotu ditzakeena. Lehenik, protestarako eta antolakuntza politikorako oinarritzko eskubideak defendatu behar ditugu: biltzeko eta manifestatzeko eskubidea, intimitaterako eskubidea, edota printzipio komunistak libreki adierazteko eta hedatzeko eskubidea, besteak beste. Bigarren, aurrerapausoak eman behar ditugu kalearen gaineko kontrollean, beste gauza batzuen artean faxismoaren aurkako borroka indartzuz gazteria militantea beldurtzen ahalegintzen diren talde erreazionarioen aurka. Hirugarren, langile kontrolpeko espazioak hedatu behar ditugu, zeinetan hainbat adierazpen iraultzaile garatzen diren. Borrokarako baldintzen aldeko borrokak antolakuntza komunistaren garapen aserako aukera ahalbidetzen duten baldintzen multzoa barne hartu behar du. Nazioarteko oligarkiak gidatu eta estatu kapitalistek proletariotzaren eskubide politikoen aurka aplikatzen duten ofentsibari aurre egiteaz ari gara. Hori guztia gidatu behar duen programa iraultzaileak amnistia osoaren printzipioz defendatu behar du, eta sistema bigegabe hau suntsitu eta askatasun unibertsalean oinarritutako gizarte batez ordezkatzeko eskubidearen alde egin.

Badakigu justizia burgesa itsua dela eta bere balantza beti alde berera erortzen dela. Baina oraindik ere garaiz gaude balantza gure aldera ekarriko duen kontrapisua ezartzeko. Haren ezpatak gu mila zati egin eta beranduegi izan baino lehen. ●


HISTORIA  
ERREPORTAJEA

# Sufragio unibertsala, proletariotza iraultzailearen eskubide politikoa

Engels zaharraren  
ekarpenak

\*

**Markel Samaniego**




Friedrich Engels (1820 - 1895)  
filosofialari eta iraultzaile  
komunista alemaniarra.

**A**lemaniko Alderdi Sozialdemokratan (SPD) eta II. Internazionallean, eskubide politikoen erabilera bi gertaerak markatu zuten: Bismarcken lege antisozialistak, batetik; eta, bestetik, frakzio erreformista eta iraultzaileen arteko eztabaidak, sufragio unibertsalari eta legalitate burgesa bitarteko iraultzaile bezala erabiltzeari buruzkoak.

Engelsek “komunismoaren deabruaren abokatu” gisa jardun zuen SPDren barruko jarrera erreformisten nagusitasun esponentzialaren aurrean. Aurre egin zion goraldian zeuden klase ertainen oldarraldiari, hain zuzen ere, Alemaniako alderdiaren zuzendaritza aparatu osoa hartzen hasi baitziren Sombart, Bernstein, Paul Barth, Bebel, Fischer, Auer... eta SPDren zuzendaritza teoriko eta politikoaren koadro gehienak erreformismoarekin lerratu ziren prozesu horretan. Implizituki, garai hartako nazioarteko langile mugimenduaren erreferente intelektualen aurka ere borrokatu zen, besteak beste hauen aurka: Millerand, Shaw eta fabiarrak, Sorel eta Croce.



HISTORIA



**T**estu honek garaiko Alemaniako langile mugimenduaren barruan sufragio unibertsalari buruz izandako eztabaidaren ezaugarri orokorrak arakatu nahi ditu. Horrekin, hura zeharkatzen zuen klase-borrokaren ondorioz SPDk bizi zuen etengabeko tentsioa islatu nahi du. Era berean, Engelsek komunismo proletarioaren ordezkari gisa duen irudia azpimarratzen du, eta klase-borroka iraultzailearekin zuen konpromiso menderaezina omentzen.

#### **TESTUINGURUA: LEGE ANTISOZIALISTAK**

1878ko urrian, *Reichtag*-ak, Bismarcken iniziatibaz, SPDren aurkako salbuespeneko lege bat onartu zuen. Lege horrek erakunde sozialistei elkartzeko, biltzeko, prentsa-askatasunerako, finantziazio politikorako eta abarretarako eskubidea debekatu zien. Ehorzketak edo jaiak bileratzat hartzen ziren, eta horiek ere galarazi egin ziren<sup>[1]</sup>. 900 militante sozialista baino gehiago erbesteratu zituzten 1878 eta 1879 artean<sup>[2]</sup>.

Paradoxikoki, klase-alderdiei ez zitzaien ukatu sufragio unibertsalerako eskubidea, eta, beraz, alderdi horiek botoa zein Legebiltzarreko ordezkaritza eskura zitzaketen. 1880ko hamarkada osoko zifrek erakusten dute SPDrekiko begikotasunak gora egin zuela lurralde osoan, eta 1881 eta 1890 artean milioi bat botoko hobekuntza lortu zuela<sup>[3]</sup>.

Bismarcken plana klase-borroka Estatuan integratzeko politika bat aplikatzean zetzan. Maila politikoan, politika errepresiboez gain, sufragio-eskubideak erakunde burgesen partaide bihurtzen zuen proletalgo iraultzailea; maila ekonomikoan, Bismarckek lege sozial batzuk sartu zituen, eta bide eman zien gaixotasun-aseguruei, zahartzarokoei (pentsio-sistemaren aurrekariak), istripu-aseguruei eta abarrei. Horrek guztiak proletarioengan ideologikoki esku hartzea eta haren masa-erakundeen barruan kontraesanak sortzea zuen helburu. Baina “zigorraren eta pastelaren” politikak ez zituen espero ziren emaitzak lortu.

Esan bezala, SPDren eragina handitzen ari zen langileen artean, eta hamarkadako azken aldian izandako greba-oldea Ruhr eskualdeko meatzariiek deitutako greba orokorrean iritsi zen gorenera. Horrek guztiak muga jo zuen 1890ean, kendu behar izan ziren lege antisozialisten porrotarekin.



Otto von Bismarck (1815 - 1898) politikari eta estatuburu prusiar-alemaniarra.

### 'KLASE BORROKAK FRANTZIAN' LANAREN 1895EKO HITZAURREA ETA SUFRAGIO UNIBERTSALA: ERREFORMA EDO IRAULTZA

Botoen kopuruak ere gora egin zuen 1890etik aurrera<sup>[4]</sup>. Engelsek ohartarazi zuen boterea bide parlamentariotik 1898rako hartzeko probabilitatea zegoela, eta Bebelek 1895erako nahikoa izango zela esan zuen. Horri beste testu bat gehitu behar zaio, Engelsek Marxen *Klase borrokak Frantzian* testuaren berrargitalpenari erantsitako hitzaurrea, hain zuzen. Lan horretan, serioski hartu ziren kontuan legezko borroka-metodoek proletalgora iraultzailearentzat eskaintzen zituzten aukerak. Hori guztia alderdi barruko borroka metodo iraultzaile eta erreformistek buruzko eztabaidan laburbildu zen: legezketasunari eta iraultzari buruzko eztabaidan.

Lehenik eta behin, egia da hitzaurreak interpretazio-tarte nahikoa eskaintzen duela sufragio unibertsalari eta parlamentarismoari buruzko ikuskerakomunista ez blindatzeko.

Alde batetik, SPDren zuzendaritzak esku hartu zuen testutik esaldi batzuk kentzeko, eta Engelsek bere borondatetz onartu zuen hori<sup>[5]</sup>. Hori horrela gertatzeko testuingurua honako hau da: 1895ean, SPDren aurkako lege antisubertsiboaren proiektua eztabaidatu zen; hitzaurrearen zirriborroan, Engelsek gogoan hartu zuen matxinada armatua metodologia taktiko bat gehiago zela, herrialde bakoitzaren testuinguruaren arabera erabili beharrekoa. Alderdiaren zuzendaritzak, Alemaniako klase menderatzailearen ofentsiba antiproletarioko urrats berri baten beldur, gehiegizkotzat jo zuen baieztapen esplizituegiak egitea, Alderdiaren legezketasuna hipotekatu baitzezakeen.

Engelsek, aldiz, aurpegiratu zien (eta hala jakinarazten zien Kautsky-ri eta Lafargueri pribatuan) ezin zi-rela legalitate burgesarekin edozein preziotan konprometitu; Alemaniako eta gainerako herrialdeetako egoera desberdina zela, eta horregatik beste herrialde batzuetan boterea hartzeko indarkeriazko metodoak berehala erabiltzea egingarria zela; horrez gain, adierazi zuen burgesiak eta lurjabeek lehenago edo geroago eraso egingo zutela, modu batera edo bestera haiek zi-rela legeak egiten zituztenak, eta proletarioek “ezin ziotela uko egin armak eskuan hartuta erresistentzia egiteko eskubideari”.

Engelsek ez zuen inoiz erreformismoarekin eta parlamentarismoarekin konpromisorik hartu, ez hitzaurre ospetsuan (tradizio marxistan bere testamentu politikotzat hartua), ez beste inon. Horren fede ematen dute testuak berak “iraultzarako eskubideari” eskubide historiko bakar gisa egindako aipamenek, edo goian aipatutako menderatze burgesaren aurka “erresistentzia egiteko eskubideari” buruz egindakoek.

Horrekin batera, 1886an Menger juristarekin izandako ika-mikan, Engelsek egokiro ohartarazi zuen proletalgo iraultzaileren aldarrikapen historikoak botere politikoaren konkistaren bidez bakarrik egin ahal izango zirela, “nahiz eta horiek legezko eskakizunen forma izan”. Eta gauza bera iradokitzen du “Sozialismoa Alemanian 1891-92” izenburuko artikuluan: burgesiak hala eskatzen badu ere, baliabide iraultzailak ezin direla baztertu dio. Izan ere, haiek aztertuz gero, kapitalistek inposatu nahi dituzten klas borrokaren arauak onartuko lituzke proletalgoak.



### INTERPRETAZIO ERREFORMISTA

Hala ere, "Jenerala" 1895ean hil zen. Eta, horrekin batera, alderdi barruko jarrera komunistek jasaten zuten traizio progresiboa sendotu zen.

Noraez horren froga eder bat izan zen Bernsteinek nola manipulatu zuen hitzaurre hori eskrupulurik gabe, bere adiskide nazional eta kontinentalen konplizitatearekin. Haren irudiko, botere politikoa konkistatzeko metodo bakarra sufragio unibertsala zen, eta matxinada armatua alde batera uzten zuen<sup>[6]</sup>. Alemaniako burgesia handiak eta junkerrek eraturako borroka-baldintzen euskarri ideologiko eta politiko leiala izan zen Bernstein.

Sombartek, zentzu horretan, Engelsen testamentua goraiatu zuen: zioenez, testua su-hesi bat zen ordura arte bizardunek defendatzen zuten “iraultzakeriaren” aurka.

Eduard Bernstein (1850 - 1932), SPD alderdiko kidea eta errebisionismoaren aitzatzat hartua.

Are gehiago, interpretazio erreformistek nazioartean homologo garrantzitsuak izan zituzten, eta haietaz elikatzen ziren aldi berean. Millerandek, Frantzian, sufragio unibertsalaren bidez Estatuaren boterea konkistatzearen alde egin zuen; bere herrikide So-relek ere eskubide horren konkistaren alde egin zuen, eta botere politikoaren konkistaren nozioa baztertu; fabiarrek, Ingalaterran, boto-eskubidearen pixkanakako zabalkundeaz eta sozialismoa zatika gauzatzeaz hitz egiten zuten, etab.

Bernsteinek eta SPDren zuzendari-tzak fenomeno errebisionista eta erreformista gorpuztu zuten estatu-mailan, zeinak Europako hainbat masa-alderdi eta oro har II. Internazionala zeharkatzen baitzituen.

**KOMUNISTAK ETA ESKUBIDE POLITIKOAK: LEZIOAK ENGELSETIK ABIATUTA**

Sufragio unibertsala borroka-metodo gisa hartzearen inguruan klase gatazka ari zen sortzen, bai hura interpretatzeko moduari, bai lurreratze praktikoari zegokienez. Guztiek sufragio unibertsalaz hitz egiten zuten, burgesiaren frakzio oligarkikoen, oportunistoak ordezkaturako goranzko klase ertainek, komunistek... Baina ulerkeria antagonikoen.

Burgesia handiak alderdia (eta horrekin batera komunismoa) parlamentariismoan integartzeko eman zizkion SPDri sufragio-eskubidea eta parlamentu-ordezkaritza izateko eskubidea.

Oportunistoak, SPDko zuzendaritza-koadroek ordezkaturak, erronka onartu zuen: ofentsiba iraultzailea erabat baztertu zuen, *legezko metodoak vs indarkeriazko metodoak* dikotomian oinarritutako diskurtsoa erosi, eta modu koherentean kokatu zen klase ertainak burgesia handiaren babes zibil politikorako bloke gisa jarduteko izan duen eginkizun historikoarekin. Horrela, sufragio unibertsalaren *kontzepzio legalista* gailendu zen alderdiaren barruan<sup>[7]</sup>.

**Engelsek asmatu egin zuen, Marxi jarraikiz, fokua sufragio unibertsalaren dimentsio iraultzailearen gainean jarrita; zeina bestelako borroka-metodoetara ere zabal zitekeen. Antolakuntza-teknologia horrek “emantzipazio-tresna” izan behar zuen, Manifestu Komunistak agindu bezala, eta masa iraultzaileen engainurako tresna izateari utzi behar zion**



***Sufragio unibertsala palanka iraultzaile gisa erabiltzeak ez du esan nahi batzorde komunista batek parlamentu burgesean parte hartu behar duenik soilik; aitzitik, eskubide hori Alderdi Historikoaren une organiko iraunkor gisa baino ez da gauzagarria***



Gauzak horrela, sufragio unibertsalaren definizio legalista baliozko definizio bakartzat hartzeak teoriarako eta antolaketarako tresna politiko serioenetako bat gabe utzi zuen proletalgo iraultzailea, eta bide erreformistara bideratu zuen.

Horregatik, Engelsek asmatu egin zuen, Marxi jarraikiz, fokua sufragio unibertsalaren dimentsio iraultzailearen gainean jartzen; zeina bestelako borroka-metodoetara ere zabal zitekeen. Antolakuntza-teknologia horrek “emantzipazio-tresna” izan behar zuen, *Manifestu Komunistak* agindu bezala, eta masa iraultzaileen engainurako tresna izateari utzi behar zion. 1880. urtean, gauza bera esan zuen Marxek, hala kartistekin izan zuen korrespondentzia trukaketan<sup>[8]</sup>, nola *Frantziako Langileen Alderdiaren programa-proiektuan*.

Sufragio unibertsala, iraultzarako bitarteko (eta baldintza) gisa, ez da, beraz, baliabide burges baten baliokidea, eta, ondorioz, ez du *kanpokotasun burgesetik* iraultza komunistarekin zerikusirik. *Proletalgo iraultzaileak kontrolatutako antolaketatresna independente* gisa funtzionatzen du, nahiz eta burgesia eta haren zentzu komuna –oportunismoak bermatua– sufragio unibertsalaren definizioa soilik bere estatu-ereduari dagokion eskubide (eta bitarteko) gisa inposatzen saiatzen diren.

Horrela, *borroka horren baldintzak ezartzeko klase-borrokak sufragio unibertsalarako eskubidea interpretatzean eta abian jartzean hartu zuen forma*<sup>[9]</sup>. Borrokarako baldintzak, izan ere, proletarioen eta burgesiaren arteko gudu-eremua ziren –eta gaur egun ere hala dira–. Engelsek ongi defendatzen du jarrera hori proposatzen duenean sufragio-eskubidea helburu hauekin erabiltzea: proletalgoan duen eragina handitzeko, propaganda-tresna gisa erabiliz jarrera ideologikoetan aurrera egiteko, eta masek uler dezaten “zergatik ematen dituzten beren bizitza eta odola”.

Baina helburu ideologikoekin, propagandistikoekin, heziketari lotutakoekin eta abarrekin erabiltzeak ez du sufragio unibertsalaren ahalmen iraultzailea agortzen. Eskubide politiko hori palanka iraultzaile gisa erabiltzeak ez du esan nahi batzorde komunistak batek parlamentu burgesean parte hartu behar duenik soilik; aitzitik, eskubide hori Alderdi Historikoaren une organiko iraunkor gisa baino ez da gauzagarria (garapen-maila guztietan: Mugimendua, Alderdia, Estatua); hau da, emaitza moduan izan behar du maila guztietako komisarioak askatasunez aukeratzeko eskubidea eta betebeharra; plangintza ekonomikoaren ereduari, epe luzearako politika estrategikoei, borrokarako eredu taktikoari eta abarri buruz erabakitzeko eskubidea; baita aipatutako guztia ezeztatzeko eskubidea eta betebeharra ere<sup>[10]</sup>.

Beste era batera esanda, sufragio unibertsala gauzatuz baino ezin dira egikaritu administrazio-unitate proletarioetatik (kontseilu proletarioak) gizarte-esferak arautzeko eta administratzeko autolegegitza kolektiborako aukerak, betiere haren gizarte-partaidetzako eredu etikoki desinteresatua eta askatasun unibertsalarekin konprometitua izanik.

Hala eta guztiz ere, eztabaida multzo horretako lezio aberats eta askotarikoen artean, Engelsek utzi zigan ondare politikoan nabarmentzen den bat azpimarratu nahi dugu, berebiziko garrantzia baitu: komunistek klase-borroka baldintzei buruzko “iniziatiba taktikoa”<sup>[11]</sup> hartzeko betebeharra dute; ez diete men egin behar burgesiak inposatu nahi duen jokoaren baldintzei, baizik eta joko bera eraldatu; eta proletariotza iraultzailearen eskubide politikoen aldeko borroka, beste antolaketarako teknika batzuekin batera, *sine qua non* baldintza gisa jarri behar da ofentsiba iraultzailea prestatzeko. ●

**Komunistek klase-borroka baldintzei buruzko “iniziatiba taktikoa” hartzeko betebeharra dute; ez diete men egin behar burgesiak inposatu nahi duen jokoaren baldintzei, baizik eta hura eraldatu**

**OHARRAK**

**[1]** B. Gustaffson, *Marxismo y Revisionismo*, Editorial Grijalbo, Barcelona, 1975, p.20.

**[2]** Ibid.

**[3]** Ibid.: "1881, 312.000 boz; 1884, 550.000 boz; 1887, 763.000 boz, eta 1890ean halako bi, 427.000 boz"

**[4]** Botoen kopuruak gora egin zuen aldi osoan: 1890. urtean 1.427.000 ziren, 1893. urtean 1.787.000, 1898. urtean 2.107.000, eta 1903. urtean 3.011.000.

**[5]** Hemen komeni da bereizketa egitea alderdiaren zuzendaritzak eginiko "zuzenketen" eta Wilhelm Liebknechtek eginiko "aldaketa partikularren" artean. Azken horiek ez zituzten Engelsekin kontrastatu, eta haren ikuspuntua aldatzen zuten, Engels "legalitate burgesaren gidaritzat" aurkezten baitzuten. Liebknechtek muturra sartu izanak ez zion inolako graziarik egin.

**[6]** B. Gustaffson, *Marxismo y Revisionismo*, Grijalbo argitaletxea, Bartzelona, 1975, 82.or.

**[7]** Horrek, aurrerago, bide eman zien ikusmolde batzuei, zeintzuen arabera politika benetan iraultzailea egiteko aukerak legekontrakotasunean zeuden, hau da, legez kontrako izatea hartzen baitzuten iraultzarako antolaketa-printzipio immanentetzat: ilegaltasunaren erromantizismoa. Bai ilegaltasunaren nozio ezkertiarrek bai legezkotasunak bat egiten dute zentzu horretan.

**[8]** Michael R. Krätikeren arabera, Marxek uste zuen Ingalaterran sufragio unibertsala ezartzea "eduki sozialistako lorpena" izango zatekeela ezinbestean, langile-klasearen gobernu politikoa ekarriko zukeelako. Ikusi bere artikulua: Friedrich Engelsen "testamentu" politikoa - Michael R. Krätke | Baimenik gabe

**[9]** Gauza bera eskubide politiko guztiekin.

**[10]** Erfurten programari egindako kritikan, Engelsek honela hitz egiten du betebeharre eskubideei ezartzen dieten muga iraultzaileaz: "Betebehar berberak, gure ustez, eskubide demokratiko-burges berberak izatearen osagarri oso garrantzitsua dira, eta horrek beren zentzu espezifikoki burgesa kentzen die".

**[11]** Lukácsek ikuspegi hori argi eta garbi azaltzen du "Parlamentarismoaren auziaz" testuan.





---

Argitalpena  
**2023KO URRIA**  
EUSKAL HERRIA

---

Koordinazioa,  
erredakzioa  
eta diseinua  
**GEDAR LANGILE  
KAZETA**

---

Web  
**GEDAR.EUS**

---

Sare sozialak  
TWITTER ETA  
INSTAGRAM  
**@ARTEKA\_GEDAR**

---

Kontaktua  
**HARREMANAK@  
GEDAR.EUS**

Harpidetza  
**GEDAR.EUS/  
HARPIDETZA**

---

Edizioa  
**ZIRRINTA  
KOMUNIKAZIO  
ELKARTEA**  
AZPEITIA

---

Lege gordailua  
**SS-01360-2019**

---


ISSN  
**2792-4548**

---

Lizentzia







arteka